

## BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

### 973

*21/2025 EBAZPENA, otsailaren 24koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Arabako Foru Aldundiarekin eta Arabako Farmazialarien Elkargo Ofizialarekin sinatutako hitzarmena, Arabako Lurralde Historikoko Añana eta Arabako Mendialdeko eskualdeetako landa-eremuko biztanleen farmazia-arreta hobetzeko proiektu pilotu bat garatzekoa.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak aipatu den hitzarmena sinatu du, eta, behar bezalako publikotasuna emateko, hau

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Arabako Foru Aldundiarekin eta Arabako Farmazialarien Elkargo Ofizialarekin sinatutako hitzarmena, Arabako Lurralde Historikoko Añana eta Arabako Mendialdeko eskualdeetako landa-eremuko biztanleen farmazia-arreta hobetzeko proiektu pilotu bat garatzekoa. Hitzarmen hori ebazpen honen eranskin gisa agertzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 24a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,  
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

2025eko otsailaren 28a, ostirala

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN OTSAILAREN 24KO 21/2025 EBAZPENARENA

LANKIDETZA-HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN, ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ARABAKO FARMAZIALARIEN ELKARGO OFIZIALAREN ARTEKOA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO AÑANAKO ETA ARABAKO MENDIALDEKO ESKUALDEETAKO LANDA-EREMUKO BIZTANLEEN FARMAZIA-ARRETA HOBETZEKO PROIEKTU PILOTO BAT GARATZEKO

#### HONAKO HAUEK BILDU DIRA:

Batetik, Miren Gotzone Sagardui Goikoetxea andrea, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailburua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkari gisa, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2024ko maiatzaren 14a egindako bileran hartutako erabakiaren bidez egintza honetarako baimenduta.

Bestetik, Ramiro González Vicente gizona, Arabako Foru Aldundiaren Ahaldu Nagusia,

Bestetik, Milagros López de Ocariz López de Muniain andrea, Arabako Farmazialarien Elkargo Ofizialaren presidentea, Arabako Lurralde Historikoko farmazia-bulegoen titularren izenean eta ordezkartzan, dagokion korporazio estatutuetan xedatutakoaren arabera.

#### HAU ADIERAZTEN DUTE:

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriak munduko bizi-itzaropen altuenetako bat du, eta, gainera, goraka doa eta horrek populazioaren zahartzea dakar.

Zahartzeak eragin argia du gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen gorakadan eta bizitzako azken etapetan mendekotasun-arazoak dituzten pertsonen kopuruan, bai eta, autonomia mantendu arren, zenbait jarduera egiteko zailtasunak dituztenen kopuruan ere.

Biztanle-talde horien artean zailtasun handiagoa dago botikak farmazia-bulegoetan jasotzeko, eta botikak hartzearekin lotutako akatsak izateko arriskua ere haunditzen da, hala nola, ahazte, ez-betetze, hartzeko arazo eta abarrei dagokien intzidentziak.

Arabako Lurralde Historikoan, biztanleen % 75 baino gehiago Gasteizen bizi da, eta kontraste handiak daude bere kuadrilletako eta udalerrietako dentsitate demografikoetan; desoreka nabarmena dago biztanleriaren lurralde-banaketan, eta landa-eremutzat sailkatutako Arabako udalerrirako asko daude (ELGAren irizpideen arabera, Eurostat, Landa Garapeneko Legea, ekainaren 30eko 7/2022 Legea. edo Eusko Jaurlaritzak garatutako Landa Eremuaren Zonakatzea). Horri gehitu behar zaio, gainera, Arabako udalerriek toki erakunde txiki (kontzejuak) asko dituztela, eta horiek herrixka edo herrigune txiki ugariz eta sakabanatuez osatuta egon daitezkeela, eta horrek zaildu egiten duela zerbitzuetarako irisgarritasuna.

Farmazia-bulegoak herriguneetatik urrun daude askotan.

Gainera, bi eskualdetan biztanleria-dentsitatea 12,5 biztanle/km<sup>2</sup>-tik beherakoa da. Europako Batzordearen iritziz maila hortatik behera despopulazio-arriskua dago. Arabako mendialdea (5 biztanleko dentsitatea/Km<sup>2</sup>) eta Añanako eskualdea (9 biztanle/Km<sup>2</sup>) dira bi eskualde horiek. Añanako Kuadrillan, 115 biztanlegune daude eta 4 farmazia bulego; Mendialdean, berriz, 2 bulego daude, eta guztira 47 biztanlegune.

Baldintza horiek guztiek agerian uzten dute programa espezifiko bat ezarri behar dela farmazia-arreta hobetzeko eta botikak etxez etxe emateko, Arabako bi eskualde horietako landa-biztanleriaren beharrei erantzuteko.

## XEDAPENAK

Lehenengoa.– Xedea.

Hitzarmen honen helburua da Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila eta Arabako Foru Aldundiko Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamendu Saila Arabako Farmazialarien Elkargo Ofizialarekin lankidetzan aritzeko baldintzak ezartzea, Arabako Lurralde Historikoko Añanako eta Arabako Mendialdeko eskualdeetako landa-eremuko biztanleen farmazia-arreta hobetzeko proiektu pilotu bat ezartzeko, «Botika etxean eskura» izeneko.

Bigarrena.– «Botika Etxean Eskura» proiektua.

Arabako Farmazialarien Elkargo Ofizialari dagokio hobekuntza-proiektu pilotu hori egitea eta ezartzea, bi administrazioekin adostu ondoren.

Proiektu pilotuaren helburu nagusia da Añanako eta Arabako Mendialdeko landa-eremuetan bizi diren pertsonen sendagaiak etxera ematea eta arreta farmazeutikoa hobetzea.

Honako helburu espezifiko hauek biltzen ditu:

- Programan parte hartzen duten pazienteei botikak etxean ematen laguntzea.
- Medikak ezarritako jarraibideen arabera agindutako botikak hartzen laguntzea pazienteari.
- Etxeko farmazia-arreta pazienteen etxean.
- Medikazioaren erabilera berrikustea eta kontrolatzea.
- Botikekin lotutako arazoak identifikatzea eta botiken erabilerari lotutako emaitza negatiboak prebenitzen edo saihesten laguntzea.
- Tratamenduarekiko atxikidura hobetzen laguntzea (betetze terapeutikoa) eta dosifikazio-sistema pertsonalizatuak prestatzea atxikidura hobetzeko beharrezkotzat jotzen diren kasuetan.
- Pazientei beren botikak identifikatzen laguntzea, botikak emateko jarraibideak ezagutzea eta botikak maneiatzeko duten jarrera hobetzea.
- Asistentzia-trantsizioen ondoren pazienteen medikazioa bateratzea.
- Pazienteen jarraipen farmakoterapeutikoa garatzea.
- Tratamenduari berari buruz edo pazienteen beste alderdi batzuei buruz garrantzitsutzat jotzen diren oharrak jakinaraztea Osakidetzako Lehen Mailako Arretako profesionali.
- Zaintzaileak badaude, haien lana erraztea eta botikak eskuratzearekin, kontserbatzearekin eta ematearekin zerikusia duten alderdiei buruzko prestakuntza eskaintzea.

Hirugarrena.– Onuradunak.

«Botika etxean eskura» programa honen onuradun izan daitezkeen pertsonak honako hauek izango dira: erreferentziako farmazia dagoen herrigunetik kanpo bizi direnak, medikazioaren

laguntza behar dutenak, mugitzeko eta lekualdatzeko aldi baterako edo betiko zailtasunak dituztenak eta, gainera, honako irizpide hauetako bi gutxienez betetzen dituztenak:

- Gutxienez 2. mailako mendekotasuna duten pertsonak.
- Gaizki kontrolatutako patologiak dituzten pazienteak, osasun-sistemako profesionalen jarraibideei jarraituz.

Pertsona horiek «Botika etxean eskura» proiektuan sartzeari borondatezkoa izango da, eta proiektuaren funtzionamendu-baldintzen onarpena sinatu beharko dute. Betekizun horiek jasota daude baimen informatuaren dokumentuan (1. eranskina).

Onuradunek edozein unetan utzi ahal izango dute programa, beren farmazian jakinarazteko baldintza bakarrarekin.

Laugarrena.– Proiektuan parte hartuko duten farmaziak.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Farmazia Zuzendaritzak berariaz egiaztatutako farmaziek bakarrik parte hartu ahal izango dute «Botika etxean eskura» proiektuan.

Akreditazioa lortzeko, farmaziak, gutxienez, farmazialari bat izan behar du, Farmazia Zuzendaritzaren eta Arabako Farmazialarien Elkargo Ofizialaren artean adostutako prestakuntza-ikastaro teoriko-praktikoa egin duena, eta haren titularrak proiektuari atxikitzeko dokumentu bat sinatu behar du, 2. eranskinean agertzen dena.

Bosgarrena.– Farmaziaren aukeraketa.

Onuradunari edo haren zaintzaileari dagokio programa garatuko duen farmazia aukeratzea eta, hala badagokio, dosifikazio-sistema pertsonalizatuak prestatzea, Osasun Saileko Farmazia Zuzendaritzak egiaztatutakoen artean.

Seigarrena.– Farmazien jarduerak.

Baimen informatuaren dokumentua sinatu ondoren, hautatutako farmaziak onuraduna edo, hala badagokio, haren arduraduna elkarrizketatu behar du, programa behar bezala garatzeko beharrezkoak diren datuak lortzeko eta erregistratzeko, Farmazia Zuzendaritzak eta Arabako Farmazialarien Elkargo Ofizialak adostutako prozeduran ezarritakoaren arabera.

Farmaziak eskatzailearen datuak jasoko ditu eta baita programan sartzeko bere baimen informatua (1. eranskina).

Farmaziak onuradunaren datuak eta programa ebaluatzeko behar diren parametro eta adierazleak Arabako Farmazialarien Elkargo Ofizialari helaraziko dizkio eta honek Osasun Sailari bidaliko dizkio.

Farmazia onuradunaren preskripzio aktiboetara sartuko da, legez aurreikusitako moduan disponsatuko ditu osasun-txartelaren bidez, eta bere etxean emango dizkio botikak.

Halaber, farmazialariak etxeko farmazia-arreta gauzatuko du onuradunaren etxean, eta onuradunak jasotzen dituen medikamentuen berrikuspina eta tratamenduen jarraipena burutuko ditu, tratamenduarekiko atxikimendurik dagoen eta botikekin erlazionatutako arazorik dagoen detektatzeko, hala nola interakzioak, bikoizketak, dosifikazio okerrak edo hartzeko tarte okerrak. Kasu horietan, zuzentzeko behar diren ekintzak zehazteko, preskripzioa egin eman dion medikuarekin jarri behar da harremanetan, gorabehera motaren eta esku hartzeko proposamenen berri ema-

teko; proposamen horiek Jarraipen Batzordeak erabakitako sailkapenaren arabera identifikatuko dira.

Gainera, pazienteei eta zaintzaileei lagunduko die botikak identifikatzen, maneiatzen eta administratzen, bai eta medikazioa kontziliatzen ere, asistentzia-trantsizioak gertatzen direnean.

Dosifikazio-sistema pertsonalizatuak prestatu behar zaizkien pertsonen kasuan, zaintzapean gordeko dituzte dispentsatutako botikak, adostutako epean Dosifikazio-Sistema Pertsonalizatuak prestatzeko. Sistema horiek aldi-aldi prestatzen eta entregatzen jarraituko dute. Dosifikazio-sistema pertsonalizatuekin (DSP) batera, tratamendu bakoitzaren hasieran pazienteari edo haren zaintzaileari edo arduradunari bertan egokitutako botika guztien prospektuak emango zaizkio, eta sendagaiak kontserbatzeko baldintzei buruzko informazioa emango zaio.

Dosifikazio-sistema pertsonalizatuak prestatzeko aldia amaitu ondoren, edo tratamendua aldatzen denean, onuradunak farmazia-bulegoari entregatu beharko dizkio eskura dituenak, dauden egoera edozein dela ere, berriak jaso aurretik.

Hilero, farmaziak programaren ebaluazio-parametro eta adierazleei buruzko informazioa entregatu behar dio bere Farmazialarien Elkargo Ofizialari, pertsona onuradun bakoitzeko datu-bilketa orri bat osatuz, formulario bidez, 3. eranskinean jasotako ereduarekin bat eta telematikoki bidaliko da informazio-sistema espezifiko baten bidez.

Zazpigarrena.– Arabako Farmazialarien Elkargo Ofizialaren jarduerak.

Arabako Farmazialarien Elkargo Ofizialak hilero bete eta bidali behar du Osasun Sailera 5. eranskinean aipatzen den dokumentua, 3. eranskineko datuekin egindako txostenarekin batera.

Akreditazioko prestakuntza antolatzen den bakoitzean, Farmazialarien Elkargo Ofizialak prestakuntza-ikastaroaren programa bidaliko dio Osasun Sailari, Prestakuntza eman aurreko adostasuna lortzeko. Era berean, egiaztapena lortu duten farmazialarien zerrenda bidaliko diote Osasun Sailari, 4. eranskinaren arabera.

Zortzigarrena.– Finantziazioa.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Arabako Foru Aldundiko Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamendu Sailak «Botika etxean eskura» proiektua finantzatuko dute, urtean 125.000 euroekin, eta Arabako Foru Aldundiak 30.000 euroko ekarpena egingo du. Guztira 250.000 euro izango dira programak iraungo duen 2 urteetarako, eta horietatik 60.000 euro Arabako Foru Aldundiak jarriko ditu. Kopuru hori Arabako Foru Aldundiak ordainduko dio Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari.

Bederatzigarrena.– Ordainketa.

Zazpigarren estipulazioan jasotako informazioa jaso eta dagozkion egiaztapenak egin ondoren, 2024an, Osasun Sailak Arabako Farmazialarien Elkargo Ofizialari hilabeteko ordainduko dion zenbatekoa, onuradun bakoitzeko eta hilabeteko, honako tarifa hauen arabera izango da:

- Medikamentuak eta produktu sanitarioak entregatzea 5 euro/hileko entrega.
- Medikazioa berrikustea 10 euro/lehenengo bisita.
- Arreta farmazeutikoa(\*) DSP gabe (2 urtean) 31,63 euro/zerbitzua.
- Atención farmacéutica(\*) DSP arekin (hileko zerbitzua) 31,63 euro/hileko.

(\*) Arreta Farmazeutikoa: Kontziliazioa, atxikimendua eta jarraipen farmakoterapeutikoa.

Elkargoak farmaziei dagokien zenbatekoa likidatuko du egin duten jardueraren eta zerbitzu motaren arabera.

Hamargarrena.– Jarraipen batzordea.

Hitzarmen honen interpretazioaren eta aplikazioaren inguruan sortzen diren arazoak konpontzeko, hitzarmenaren xede diren jarduerak nola gauzatzen diren ebaluatzeko eta hitzarmen honetan ezarritako konpromisoak hobeto garatzeko eta betetzeko proposamenak egiteko, eta parte hartzen duten alderdien artean behar bezala koordinatzeko, jarraipen-batzorde bat eratuko da. Arabako Farmazialarien Elkargo Ofizialaren ordezkari bi izango dira, Arabako Foru Aldundiko Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduko Departamentuko ordezkari bi, eta Osasun Sailaren ordezkari bi eta horietako bat izango da batzordeburua.

Alderdien konpromisoa hitzarmena betetzen dela zaintzea da, eta, ez betetzeak, hitzarmena baliogabetzea ekarriko du.

Hitzarmenaren edukiaren aldaketa, sinatzaileek aho batez adostu beharko dute.

Hamaikagarrena.– Datuen babesia.

Alderdi sinatzaileek konpromisoa hartzen dute Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko. Halaber, 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena.

Hamabigarrena.– Indarraldia eta luzapena.

Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2 urtez egongo da indarrean, baldin eta kreditu egokia eta nahikoa badago Euskal Autonomia Erkidegoko eta Arabako Foru Aldundiko Aurrekontu Orokorretan. Aurreko paragrafoan aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, Hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute Hitzarmena 2 urtez luzatzea.

Eta azaldutako guztiarekin ados daudela adierazteko, agiri hau sinatu dute, jatorrizko bost ale-tan, goian adierazitako tokian eta egunean.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 10a.

#### ALDERDI SINATZAILEAK

Osasuneko sailburua,  
MIREN GOTZONE SAGARDUI GOIKOETXEA.

Arabako Foru Aldundiaren Ahdun Nagusia,  
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE.

Arabako Farmazialarien Elkargo Ofizialeko Presidentea,  
MILAGROS LÓPEZ DE OCARIZ LÓPEZ DE MUNAIN.

## 1. ERANSKINA

## ANEXO 1

**Eskatzen duen pertsonaren datuak eta baimen informatua /  
Datos y Consentimiento informado del/de la persona solicitante**

Pazientea: / Paciente<sup>(1)</sup>:

Pazientearen identifikazio-kodea / Código identificación paciente <sup>(1)</sup> __ / __ / __ / __ (2)		<sup>(1)</sup> Farmaziak bete beharrekoa <sup>(1)</sup> A rellenar por la farmacia
Izen-deiturak / Nombre y apellidos		TISa / TIS
Helbidea / Domicilio		Herria / Población
Inklusio-irizpideak / Criterios de inclusión		Seinalatu / Marcar (X)
<p>Gutxienez 2. mailako mendekotasuna duten pertsonak Personas con al menos un grado 2 de dependencia.</p> <p>Gaizki kontrolatutako patologiak dituzten pazienteak eta/edo Kalteberatasun-egoeran dauden pertsonak Pacientes con patologías mal controladas y/o Personas en situaciones de vulnerabilidad</p> <p><b>Egoeraren deskribapena gaizki kontrolatutako patologiareneko edo kalteberatasunaren kasuetan<sup>(1)</sup>:</b> <b>Descripción de la situación en caso de patología mal controlada o vulnerabilidad<sup>(1)</sup>:</b></p>		
Aukeratutako zerbitzua / Servicio de elección		Seinalatu / Marcar (X)
Arreta farmazeutikoa DSPrik gabe / Atención farmacéutica SIN SPD  Arreta farmazeutikoa DSPrekin / Atención farmacéutica CON SPD (Adierazi medikamentu enblistagarrien kopurua/Indicar nº medicamentos emblistables)		( )

Farmazia: / Farmacia<sup>(1)</sup>:

Zk. / Nº	Izena / Nombre	Lekua / Ubicación	Herria / Población

(2) Lehenengo bi digituak lurralde kodeak dira (Araba:01, Bizkaia:48, Gipuzkoa: 20) hurrengo laurak farmaziaren kodea eta azken biak farmaziak pazienteari ezarritako zenbakiak dira.

(2) Los dos primeros dígitos corresponden al código territorial (Alava/Araba:01, Bizkaia:48, Gipuzkoa: 20), los cuatro siguientes al número de la farmacia y los dos últimos al número que la farmacia asigna al paciente

2025eko otsailaren 28a, ostirala

Adierazten dut Arabako Lurralde Historikoko Añanako eta Arabako Mendialdeko eskualdeetako landa-eremuko biztanleen farmazia-arreta hobetzeko programaren funtzionamenduaren berri eman didatela.	Declaro haber sido informado-a del funcionamiento del programa para la mejora de la atención farmacéutica de la población del ámbito rural de las comarcas de Añana y Montaña alavesa del territorio histórico de Álava.
Orobat, sistemak ondo funtziona dezan, ardura hauek hartzen ditut:	Asimismo, para un buen funcionamiento del sistema me comprometo a:
– Nire tratamenduei dagokien informazio osoa ematea, eguneratuta.	– Facilitar toda la información relativa a mis tratamientos de forma actualizada.
Farmaziak pazientearentzako DSPa egiten badu:	En caso de que la farmacia elabore SPD para el paciente:
– DSPa prestatzeko aurrez emandako sendagaiak farmaziarantz uztea, gorde egin ditzan.	– Dejar en depósito a la farmacia la medicación previamente dispensada para la preparación del SPD.
DSPa kontserbatzeko baldintzak betetzea	Cumplir con las condiciones de conservación del SPD.
Bestalde, farmazialari titularra, honako ardura hauek hartzen ditu:	Por su parte, el-la farmacéutico-a titular, se compromete a:
– Pazienteen datuen erabilera desegokia ez egitea.	– No hacer un uso indebido de los datos del / de la paciente.
– DSPa behar bezala prestatzeko ezarritako prozedurari jarraitzea.	– Seguir el procedimiento establecido para la correcta elaboración del SPD.
– Farmazia bulegoan gordetzeko utzitako sendagaiak zaintzea.	– Custodiar la medicación que queda depositada en la oficina de farmacia.
– Blisterren bat baliogabetzen duen edozein gorabehera gertatuz gero, pazienteari lehenbailehen jakinaraztea.	– Avisar al a/la paciente con la mayor prontitud posible ante cualquier eventualidad que invalide un blister
– Pazienteari edozein zalantza sortzen bazaio, hari informazioa eman eta zalantzak argitzea.	– Informar y aclarar al / a la paciente cualquier duda que surja.

....., ...../...../.....

Data / Fecha

.....  
Pazientearen edo legezko arduraduna  
Paciente o responsable legal

.....  
Farmazialari titularra  
Farmacéutico-a titular

2025eko otsailaren 28a, ostirala

1. Tratamenduaren arduraduna: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Farmazia Zuzendaritza

• 1. telefonoa: 945019228

• Emaila: [dirfar-san@euskadi.eus](mailto:dirfar-san@euskadi.eus)

• Donostia –San Sebastian kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz)

Zure datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: Prestazio farmazeutikoa kudeatzea.

**Arduraduna:** Farmazia Zuzendaritza, Osasun Saila

**Helburua:** Osasun Sailak finantzatzekoak diren errezetak agintzeko, emateko eta fakturatzeko prozesua kontrolatzea. Osasun Sailak finantzatzekoak diren produktu farmazeutikoak agintzearen, ematearen eta fakturatzekoaren, preskribatzen dituzten fakultatiboen eta ematen dituzten farmazia-bulegoen gaineko informazioa ustiatzea. Ikuskapen-oniritziaren kontrol espezifiko. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko edo Osasun Sailak baimendutako mediku fakultatiboei ematen zaizkien errezeta-taloitegiak emateko prozesua kudeatzea.

**Legitimazioa:**

Beharrezko tratamendua, aplikagarriak diren lege-eginbideak betetzeko.

**Hartzaileak:**

Osasun entitateak, Gizarte segurantzaren organismoak

**Eskubideak:** Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarriari jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

**Informazio osagarria:** Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua: [www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/088500-cap2-es.shtml](http://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/088500-cap2-es.shtml)

**Araudia:**

Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra ([www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa\\_dpd/eu\\_def/adjuntos/RGPD-2016\\_0679\\_eu.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf))

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. ([www.boe.es/boe\\_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf](http://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf))

2. Tratamenduaren arduraduna: goian aipatutako farmazia

DPD: \_\_\_\_\_

Responsable del tratamiento 1: Dirección de Farmacia del Departamento de Salud del Gobierno Vasco

•Teléfono 1: 945019228

•Email: [dirfar-san@euskadi.eus](mailto:dirfar-san@euskadi.eus)

•C/ Donostia – San Sebastián 1, 01010 Vitoria -Gasteiz)

Sus datos de carácter personal serán tratados e incorporados a la actividad de tratamiento denominada: *Gestión de la prestación farmacéutica*.

•**Responsable:** Dirección de Farmacia, Departamento de Salud.

•**Finalidad:** Control del proceso de prescripción, dispensación y facturación de recetas financiadas por el Departamento de Salud. Explotación de información sobre prescripción, dispensación y facturación de productos farmacéuticos financiados por el Departamento de Salud y sobre personal facultativo prescriptor y oficinas de farmacia dispensadoras. Control específico del visado de inspección. Gestión de la entrega de talonarios de recetas a facultativos médicos de Osakidetza-Servicio vasco de salud o autorizados por el Departamento de Salud.

•**Legitimación:** Tratamiento necesario para el cumplimiento de obligaciones legales aplicables.

•**Destinatarios:** Entidades sanitarias, Organismos de la seguridad social

•**Derechos:** Usted tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos, así como otros derechos que se recogen en la información adicional.

•**Información adicional:** Puede consultar la información adicional y detallada sobre Protección de Datos en nuestra página web: [www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/088500-cap2-es.shtml](http://www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/088500-cap2-es.shtml)

•**Normativa:**

Reglamento General de Protección de Datos ([eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES](http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES))

Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales ([www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673](http://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673))

Responsable del tratamiento 2: Farmacia arriba citada

DPD: \_\_\_\_\_

## 2. ERANSKINA

## ANEXO 2

## Atxikitzeako ardurak onartzea / Compromiso de adherencia

Farmazialari titularra: / Farmacéutico-a titular:

Izen-deiturak / Nombre y apellidos	Kolegiatuaren zk. / N.º de colegiado-a

Farmazia: / Farmacia:

Zk. / N.º	Izena / Nombre	Lekua / Ubicación	Herria / Población

Farmazialari kreditatuak: / Farmacéuticos-as acreditados-as:

	Izen-deiturak / Nombre y apellidos
1	
2	
3	
4	

Arabako Lurralde Historikoko Añana eta Arabako Mendialdea eskualdeetako landa-eremuko biztanleen farmazia-arreta hobetzeko programarekin bat egin nahi dut.

Nire farmazia bulegoak dituen egitura eta tresneria aintzat hartuta, farmazia bulegoa programan zehaztutako arreta farmazeutiko zerbitzuak eta DSP egiteko egokia dela jotzen dut.

Orobat, nire farmazia bulegoan goian aipatutako farmazialari kolegiatuak ditut; denok «Botika Etxean Eskura» programaren sistematikari buruzko eta dosifikatze sistema pertsonalizatuak prestatzeko lan-prozedura normalizatuari buruzko prestakuntza-ikastaro teoriko-praktikoa egin dute eta egiaztagiria jaso dute.

Estoy interesado-a en adherirme al Programa para la mejora de la atención farmacéutica de la población del ámbito rural de las comarcas de Añana y Montaña Alavesa del Territorio Histórico de Álava.

Considero que mi oficina de farmacia es apta por estructura y utillaje para realizar los servicios de Atención Farmacéutica domiciliaria y de elaboración de SPDs descritos en este programa.

Así mismo, mi oficina de farmacia cuenta con los farmacéuticos-as colegiados-as arriba citados, que han realizado el curso de formación teórico-práctico sobre la sistemática del programa «Botika Etxean Eskura» y sobre el procedimiento normalizado de trabajo (PNT) en la preparación de los Sistemas Personalizados de Dosificación y han sido acreditados.

2025eko otsailaren 28a, ostirala

Arabako Sendagaigileen Elkarteari eskatzen diot nire eskaera kontuan har dezala, eta nire farmazia onar dezala Arabako Lurralde Historikoko Añana eta Arabako Mendialdea eskualdeetako landa-eremuko biztanleen farmazia-arreta hobetzeko programa gauzatzeko.

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko 3/2018 Lege Organikoa eta 2016/679 (EB) Erregelamendua betez, jakinarazten dizugu zure datuak fitxategi batean sartuko direla, behean aipatutako tratamenduaren arduradunen titulartasunarekin. Fitxategi horren helburua da Arabako Lurralde Historikoko Añanako eta Arabako Mendialdeko eskualdeetako landa-eremuko biztanleen farmazia-arreta hobetzeko programa lortzea.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, eramangarritasunerako eta erabilera mugatzeko eskubideak baliatu ahal izango ditu, aipatutako Erregelamenduan berariaz onartutakoak. Horretarako, idazki bat aurkeztu beharko du, nortasunaren egiaztagiri frogagarriarekin batera, honako hauei zuzenduta:

1 tratamenduaren arduraduna: Arabako Farmazialarien Elkargo Ofiziala

• 1. telefonoa: 945230721

• Emaila: [cofalava@cofalava.org](mailto:cofalava@cofalava.org)

• Alaba Jeneralaren kalea 21, 3. solairua, 01005 Vitoria-Gasteiz

OSASUN AURREIKUSPEN, ZERBITZU ETA AHOLKULARITZA SAILA, S.L.U.,

• Telefonoa: 914311244

• Emaila: [protecciondedatos@grupopspn.es](mailto:protecciondedatos@grupopspn.es)

• Helbidea: Genova kalea 26, 28004, Madril

Tratamenduaren arduraduna: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Farmazia Zuzendaritza

• 1. telefonoa: 945019228

• Emaila: [dirfar-san@euskadi.eus](mailto:dirfar-san@euskadi.eus)

• Donostia – San Sebastian kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz)

Solicito al Colegio Oficial de Farmacéuticos de Álava que considere mi solicitud y acepte la inclusión de mi farmacia para realizar el «Programa para la mejora de la atención farmacéutica de la población del ámbito rural de las comarcas de Añana y Montaña Alavesa del Territorio Histórico de Álava.»

En cumplimiento de la Ley Orgánica 3/2018, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales y Reglamento (UE) 2016/679 le informamos que sus datos se incorporarán a un fichero titularidad de los responsables del tratamiento abajo mencionados, cuya finalidad es la consecución del Programa para la mejora de la atención farmacéutica de la población del ámbito rural de las comarcas de Añana y Montaña Alavesa del Territorio Histórico de Álava.

Podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, portabilidad y limitación de uso, expresamente reconocidos en el citado Reglamento, mediante escrito, acompañado de acreditación fehaciente de su identidad, dirigido a :

Responsable del tratamiento 1: Colegio Oficial de farmacéuticos de Alava

•Teléfono 1: 945230721

•Email: [cofalava@cofalava.org](mailto:cofalava@cofalava.org)

•C/ General Álava 21 3º, 01005 Vitoria-Gasteiz

DPD: PREVISIÓN SANITARIA, SERVICIOS Y CONSULTORÍA, S.L.U. ,

•Teléfono: 914311244

•Email: [protecciondedatos@grupopspn.es](mailto:protecciondedatos@grupopspn.es)

•Dirección: C/ Génova, 26, 28004, Madrid

Responsable del tratamiento 2: Dirección de Farmacia del Departamento de Salud del Gobierno Vasco

•Teléfono 1: 945019228

•Email: [dirfar-san@euskadi.eus](mailto:dirfar-san@euskadi.eus)

•C/ Donostia – San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz)

.....  
Data/ Fecha

.....  
Farmazialari titularra / Farmacéutico-a titular

2025eko otsailaren 28a, ostirala

3. ERANSKINA  
ANEXO 3DSPa duen paziente bakoitzaren hileko datuen fitxa/  
Ficha datos mensuales de cada paciente con SPD

FARMAZIAREN DATUAK/DATOS FARMACIA		
Farmaziaren izena/ Nombre Farmacia		
Farmaziaren zkia/N.º Farmacia		
Lekua/Ubicación		
Farmazilari arduraduna/Farmacéutico responsable		
PAZIENTEAREN DATUAK/DATOS PACIENTE		
Pazientearen identifikazio kodea/N.º identificación paciente:		
Sexua/Sexo		
Jaiotze urtea/Año nacimiento		
Medikamentu kopurua/ N.º medicamentos totales		
FARMAZIAK / SERVICIOS DE ATENCIÓN FARMACÉUTICA		
Dispentsazioa entregarekin / Dispensación con entrega		
Lehenengo bisitako berrikustea / Revisión primera visita		
DSPrik gabeko arreta farmazeutikoa / Atención farmacéutica sin SPD	1. bisita	2. bisita
Arreta farmazeutikoa DSPrekin / Atención farmacéutica con SPD		
ADHERENTZIA/ADHERENCIA		
Inoiz ahaztu al zaizu medikamentuak hartzea?/¿Se olvida alguna vez de tomar los medicamentos?		
Sendagaiak adierazitako orduetan hartzen dituzu?/¿Toma los medicamentos a las horas indicadas?		
Ondo zaudenean, hartzeari uzten dio? / Cuando se encuentra bien, ¿deja alguna vez de tomarlos?		
Inoiz kalte egiten badizute, medikazioa hartzeari uzten diozu? / Si alguna vez le sientan mal, ¿deja de tomarla?		
Inoiz ahaztu al zaizu medikamentuak hartzea? / ¿Se olvida alguna vez de tomar los medicamentos?		
Eraitza: Adherentea (Bai/Ez) / Resultado: Adherente (Si / No)		
KONZILIAZIOA/CONCILIACIÓN		
Ospitaleko alta / Alta hospitalaria		
Larrialdietara bisita / Visita a Urgencias		
Kanpoko kontsultak/Consultas externas		
Espezialista probatuak / Especialistas privados		
MEDIKAMENTUEKIN LOTUTAKO ARAZOAK (MLA) ETA MEDIKAMENTUEKIN LOTUTAKO EMAITZA NEGATIBOAK (MEN)/PROBLEMAS RELACIONADOS CON MEDICAMENTOS Y RESULTADOS NEGATIVOS ASOCIADOS A MEDICAMENTOS		
Aurkitutako MLA kopurua/N.º PRM detectados		
Aurkitutako MLA mota/Tipo de PRM detectado:		
Administrazio akatsa/Administración errónea		
Ezaugarri pertsonalak (zehaztu)/Características personales (especificar)		
Kontserbazio desegokia/Conservación inadecuada		
Kontraindikazioa/Contraindicación		
Dosia-pauta-iraupena desegokia/Dosis-pauta-duración no adecuada		
Duplizitatea/Duplicidad		
Dispentsazio akatsa/Errores en la dispensación		
Preskripzio akatsa/Errores en la prescripción		
Ez-betetzea/Incumplimiento		
Interakzioak/Interacciones		
Behar ez den medikamentua/Medicamento no necesario		
Tratamentuan eragina duen beste osasun arazoren bat/Otros problemas de salud que afectan al tratamiento		
Kontrako efektuak izateko probabilitatea/Probabilidad de efectos adversos		
Gutxi tratatutako osasun arazoa/Problema de salud insuficientemente tratado		
Bestelakoak/Otros		
Aurkitutako MEN kopurua/N.º RNM detectados		
Aurkitutako MEN mota/Tipo de RNM detectado:		
Ez beharrezkoa/No necesidad		
Beharrezkoa/Necesidad		
Ez eraginkorra/Inefectividad		
Segurtasun eza/Inseguridad		
ESKU-HARTZEA MLA BAKOITZEAN/INTERVENCIÓN ANTE CADA PRM		
Paziente/Zaintzaileari komunikatu/Comunicación con cuidador/paciente		
Komunikatu-bideratu Lehen arretako medikura/Comunicación-derivación MAP		
Lehen arretara bideratzeko arrazoiak/Causas derivación MAP		



## 5. ERANSKINA

## ANEXO 5

Erregistro-orria /Hoja de Registro

HILABETEA/MES.....URTEA / AÑO .....

LURRALDEA/TERRITORIO HISTÓRICO .....

Farmaziaren zenbakia eta izena / N.º y Nombre Farmacia	N.º pacientes				€
	Entregatzea / Entrega <sup>(1)</sup>	Lehenengo bisita Berrikustea <sup>(2)</sup>	Arreta farmazeutikoa DSPrik gabe <sup>(3)</sup>	Atención farmacéutica con SPD <sup>(4)</sup>	
<b>TOTALAK/ TOTALES</b>					

<sup>(1)</sup> Medikamentuak eta produktu sanitarioak entregatzea 5 €/hileko  
Entrega medicamentos y productos sanitarios: 5 €/mes

<sup>(2)</sup> Medikazioa berrikustea: 10 €/lehenengo bisita (behin bakarrik paziente bakoitzeko)  
Revisión medicación: 10 €/primera visita. (sólo una vez por cada paciente)

<sup>(3)</sup> DSPrik gabeko arreta farmazeutikoa: 32 € (urtean bitan bakarrik paziente bakoitzeko)  
Atención farmacéutica sin SPD: 32€ (sólo dos veces al año por cada paciente)

<sup>(4)</sup> Arreta farmazeutikoa DSPrekin: 32 €/hileko  
Atención farmacéutica con SPD: 32 €/mes